



# gutunzuria

BILBOKO LETREN X NAZIOARTEKO JAIALDIA

**X** URTE OSPAKIZUNA | **25** APIRILA > **01** MAIATZA

GUILLERMO ARRIAGA

JEAN CLAUDE CARRIÈRE

DIAMELA ELTIT

J.A. GONZÁLEZ IGLESIAS

SIRI HUSTVEDT

CLARA JANÉS

DARÍO JARAMILLO

CHANTAL MAILLARD

ALBERTO MANGUEL

ANNIE PROULX

BEÑAT SARASOLA

KIRMEN URIBE

MEDIATEKA  
BBK

**Az**  
Azkuna Zentroa

AlhóndigaBilbao

[www.azkunazentroa.eus](http://www.azkunazentroa.eus)

**Bilbao**

KOLABORATZAILEAK

SMART  
PL/CES

Co-financed  
by the Creative  
Europe program



INSTITUT  
FRANÇAIS



BIZKAIA  
Asociación de Librerías  
Liburu Sarraldean Elkartea

KOMUNIKAZIO LANKIDEAK

CADENA  
SEIZ

EL CORREO

Deia



# LITERATURA-ELKARRIZKETEN HAMAR EDIZIO

Azkuna Zentroak antolatzen duen Bilboko Letren Nazioarteko Jaialdiaren urtemuga da, Gutun Zuriarena. Aurten, hamargarren edizioa izango du literatura-bilera honek, eta idazleek hitza hartuko dute, sorkuntzan eta arlo pertsonalean izandako esperientzietatik abiatuta, gaur egungo jendarteaz hausnarketa egiteko.

Hamar edizio hauetan, ehun idazle baino gehiago etorri dira hitzordu honetara, beren esperientziak ikusleekin partekatzeko. Mundu osoko literaturako erreferentziako idazleak, Nobel sariak ere bai, euskal letretako ordezkariak, eta literatura-arloko kazetariak izan dira gurekin, eta aberastu egin gaituzte beren jardunekin.

Eta hitza ez da izan protagonista bakarra. Musikak, zinemak eta arte eszenikoek ere garrantzi nabarmena izan dute

jaialdian, urtero Azkuna Zentroa sorkuntza artistikoaren erdigune bilakatzeko.

Gutun Zuriaren hamargarren edizio honetan, Ospakizuna izango da protagonista, eta inaugurazioa Alberto Manguelen eskutik izango dugu, literaturari egindako gorazarre batez. Ospe handiko izenak izango dira harekin batera: Annie Proulx, Siri Hustvedt, Diamela Eltit, Kirmen Uribe, Jean-Claude Carrière eta Guillermo Arriaga.

Literatura ardatz gisa duten adierazpide artistiko desberdinekin jarriko dute harremanetan beren sorkuntzako esperientzia. Aurten, poesiak ere protagonismoa izango du, gure poetarik onenetako batzuek ordezkaturik: Chantal Maillard, Clara Janés, Darío Jaramillo, J.A. González Iglesias eta Beñat Sarasolak errezitaldi poetiko bat eskainiko digute, itxuraz gogoangarria izango den elkarketan.

Edizio honetan ere argitalpenen munduak tokia izango du, eta, bertan, Ofelia Grande (Siruela), Manuel Borrás (Pre-Textos), Joan Tarrida (Galaxia Gutenberg) eta Claudio López (Penguin Random House) editoreek katalogo editoriala nola prestatzen den azaldu, eta liburuen edizioaren eta sustapenaren azpian dagoen egitura konplexuaren berri emango digute.



APIRILAREN 25ETIK MAIATZAREN 1ERA



'DENBORAN ZEHAR', ESKERRIK ASKO PARTE HARTZEAGATIK

Kulturen Ataria

Orain dela hilabete batzuk, adore eman genien herritarrei 'Denboran Zehar' instalazioan parte hartzera. Luzinterruptus kolektiboak sortu duen instalazio artistikoa da, eta harekin ospatuko dugu Gutun Zuriaren hamargarren urteurrena.

Milaka lagunek onartu zuten gonbidapena, eta beren hausnarketak bidali zizkiguten, pieza osatzeko argitara eman genituen oroitzapenezko koadernoetan. Ikasleek, kultura-elkarteetako, irakurketa-klubetako eta idazketa-tailerretako kideek, eta zentroko bisitariek beren gogoetak oparitu dizkigute, kontakizunen, marrazkien edo collageen bidez. Eskerrak eman nahi dizkiegu guztiei, orri horietan erakutsi dituzten ardura eta maitasunagatik.

Behin koadernoak bildu ondoren, Luzinterruptus kolektibo artistikoa Eguzkiaren Terrazan utzi ditu, denborak eta klimatologiak forma eman diezaieten beren orriei, barruan ezkutaturik duten argiekin indartutako edertasun ia eskultorikoz hornitzen. Horren emaitza 'Denboran Zehar' obra bisuala izango da, eta Kulturen Atarian egongo da ikusgai, apirilaren 25etik maiatzaren 1era arte.

Azkuna Zentroak eskerrak eman nahi dizkie Gutun Zuriari egindako omenaldi honetan parte hartu duten lagun guztiei. Zuen laguntzarik gabe, ezinezkoa izango zen.

MARTXOAREN 10ETIK MAIATZAREN 1ERA

## GUTUN ZURIAREN TRAZUAK


### ERAKUSKETA

Medialab 3. 3 solairua. Mediateka BBK. Sarrera dohainik.

Gutun Zuriaren espazio bibliografikoan, erakusketa bat izango dugu aurten, ikusentzuleekin Gutun Zuri jaialdiko uneak partekatu dituzten eta beren idazleak beren eskuz sinatuta utzi dizkiguten idazleen omenez.

Apirilaren 25etik maiatzaren 1era arte, Bilboko Letren Nazioarteko Jaialdiaren

hamargarren edizioan parte hartuko duten egileen obrak aurkitu ahal izango dituzu espazio horretan.



## ASTEARTEA, APIRILAK 25



THE ENDGAME / 19:30

## OLATZ DE ANDRÉS

GUTUN ZURIA  
INAUGURAZIO EKITALDIA

'The Endgame' proiektuak begirada kaleidoskopikoa zuzentzen dio mila urte baino gehiago dituen xake-jokoari, eta joko horren arauetan, metaforetan eta aukera amaigabeetan inspiratuta dagoen mugimenduaren mundua sortzen du. Gutun Zuriaren inaugurazioan, piezaren laburpen bat aurkeztuko da.

**Azkuna Zentroaren 2016ko Amphytrion Egonaldien Programan sortu da.**

Zuzendaritza: Olatz de Andrés.

Koreografia eta testuak: Olatz de Andrés eta interpreteen taldea.

Interpreteak: Christos Xyrafakis, Pilar Andrés, Paula Serrano, Isabel Álvarez.

## SOLASEAN...

## ANNIE PROULX (Connecticut, 1935)



Annie Proulx distira handiz sartu zen arrapaladan literatura-munduan berrogeita hamarrak beteta zituenean. *The Shipping News* bigarren eleberria (1993) zinemara eraman zuten, Pulitzer saria irabazi zuen 1993an. Horren ostean, *Heart Songs and Other Stories* (1988), *Accordion crimes* eta *That Old Ace in the Hole*. Film bihurtu zuten *Brokeback Mountain* kontakizunari esker (1997), gaurkotasunera itzuli zen berriro. Bere azken eleberria, *Barkskins*, mendekuz, zitakeriaz eta abenturaz beteriko hiru mende zeharkatzen dituen epopeia bizkorra da, egur-ustiatzea atzeko gaitzat hartuta.


IRAKURLEAREN ORDUA / 21:00

BILERA

ALBERTO MANGUEL ETA ANNIE PROULXEKIN

JAIALDIAREN HASIERA ALBERTO MANGUELEN ESKUTIK

## ALBERTO MANGUEL (Buenos Aires, 1948)



Idazlea, Argentinako Errepublikako Liburutegi Nazionalako zuzendaria eta Argentinako Letren Akademiako zenbakidun akademikoa. Manguel irakurketaren defendatzailea eta liburuaren historiaren irakurketaz gehien dakien pertsonetako bat da. Haren lanen artean, hauek nabarmentzen dira: *Una historia de la lectura*, Médicis Saria (Alianza 1997 eta Norma 1999) eta *Diario de lecturas* (Alianza 2004). Espainieraz hauek idatzi ditu: *El regreso* (Brughera, 2005) eta *Todos los hombres son mentirosos* (RBA 2009). Orain dela gutxi *El viajero, la torre y la larva* (2014) eta *Historia natural de la curiosidad* (2015) eman ditu argitara.

## JOSÉ LUIS REBORDINOS (Donostia Zinemaldiko zuzendaria)



Donostia Zinemaldiko zuzendaria. Nosferatu liburu bilduma zuzendu du 22 urtez. Beste egile batzuekin batera, hainbat liburu idatzi ditu euskal zinemagileei buruz: Elias Querejeta, Montxo Armendariz, Antxon Eceiza, Julio Medem, Javier Aguirresarobe eta abar. Asiako zinemaz (*Shinya Tsukamoto, poeta y guerrillero del cinematógrafo*) edo beste zenbait gairi buruz ere (*El dolor, los nervios culturales del sufrimiento-Breve historia del cortometraje vasco*) idatzi du. Espainiako Ministroen Kontseiluak Arte Ederretako Merezimenduaren Urrezko Domina eman zion 2015ean.



## 'GUTUN ZURIA, HAMAR URTE'

Ez zaigu modu hoberik bururatu idazle bat omentzeko liburu bat eskaintzea baino. Horregatik, jaialdiaren hamargarren urteurrenean, 'Gutun Zuria, hamar urte' eman dugu argitara, literatura-elkarriketez beteriko urte hauetan bidelagun izan ditugun letren profesionalak gogora ekartzeko

Oroitzapenezko liburu hau AzShopen izango duzu eskuragarri. Baliatu aukera honetaz, aurtun irakurlearen orduan gurekin izango diren idazleek sina dezaten

SOLASALDIAK: AUDITORIOA. -1. SOLAIRUA. 3€ / 2€; IRAKURLEAREN ORDUA: ERAKUSKETA ARETOKO ATAURREA. -2. SOLAIRUA HITZALDIRA JOATEN DIREN LAGUNENTZAT BAKARRIK. BILERA EDITOREEKIN: SARRERA DOHAINIK, GONBIDAPENA IZANEZ GERO (JASO INFOPUNTUAN) LEKU GUZTIAK BETE ARTE. AUDITORIUMA BETETA BADAGO, SOLASALDIAK BASTIDA ARETOAN JARRAITU AHAL IZANGO DITUZU 2€ / 1€.

SARRERAK SALGAI INFOPUNTUAN (INFORMAZIOKO GUNEAN) ETA WWW.AZKUNAZENTROA.EUS HELBIDEAN

ALDAKETAK EGON DAITEZKE PROGRAMAZIOAN. KONTSULTATU INFORMAZIO OSOA HEMEN: WWW.AZKUNAZENTROA.EUS

## AZTEAZKENA, APIRILAK 26

ATARIKOA // INUN. Gaia: Erotismoa **Kantaren izena:** Zure sahetsean **Hitzak:** Itxaro Borda. Itxaro Bordaren poema erotikoa

SOLASEAN... / 19:30

**SIRI HUSTVEDT** (Minnesota, AEB 1955)

Filologian lizentziatua Columbiako Unibertsitateak, eta eleberriz eta saiakera ugariren egilea da. *Los ojos vendados* (1992) lanak Nazioarteko Kritikaren saria lortu zuen Berlingo Zinema Jaialdian, egokitzapen zinematografikoagatik. *Todo cuanto amé* (2003) lanak Quebecoko liburuzainen saria eta Femina Étranger saria jaso zituen. *El verano sin hombres* (2011) Femina Étranger sariko finalista izan da, eta, *El mundo deslumbrante* (2014) lanari esker, Los Angeles Times Book saria irabazi zuen fikzioaren atalean, Dublin Literary Award-eko finalista izan zen eta Booker sarirako ere hautatu zuten.

**ALMUDENA CACHO** (Kazetaria)

Almudena Cacho kazetaria da. Gaur egun, *Más Que Palabras* irratsaioa zuzentzen eta aurkezten du Radio Euskadin; irrati horretako ahots nabarmena izan da albistegietan eta saioetan 90eko hamarkadaz geroztik. Saio bereziak zuzendu izan ditu atzerritik, eta hizlari bezala esku hartu izan du komunikazioaren esparruko mintegi eta biltzar profesionaletan; azkenekoa *Ideas para cambiar el mundo* (Mundua aldatzeko ideiak) izan da. Artikuluak argitaratu izan ditu eguneroko prentsan —, eta bere ahotsa jarri ere bai film luze zinematografikoetan, telebistako serieetan eta dokumentaletan.

## ZINEMATEKA

**17:00: BROKEBACK MOUNTAIN (2005) 134'**

1997an New Yorker-en argitara emandako Annie Proulxen kontakizunean oinarritua.

**20:00: GUTARIKO AZKENA (2016) 75'**

Kirmen Uribe idazlearen idazketa-prozesua eta nazioarteko beste artista batzuekin dituen harremanak lantzen dituen dokumentala.

IRAKURLEAREN ORDUA: BILERA SIRI HUSTVEDTEKIN / 21:00

## OSTEGUNA, APIRILAK 27

INTRODUCCIÓN // INUN. Tema: Sekretuak eta Gezurak **Título de la canción:** Batzuetan ixilik **Letra:** Iñaki Mendizabal. Gezur baten ondorioz aita eta seme baten arteko banaketaren inguruko

SOLASEAN... / 19:30

**DIAMELA ELTIT** (Santiago, Txile, 1949)

Diamela Eltit, idazlea. Gaur egun (2017) Distinguished Global Professor da New Yorkeko Unibertsitatean eta irakasle titularra Txileko Unibertsitate Teknologiko Metropolitanan. 2015ean Simón Bolívar katedran egon zen Cambridgeko Unibertsitatean, Ingalaterran. 2010ean Iberoamerikako José Donoso Literatur Saria jaso zuen, literaturan egin duen ibilbide nabarmenaren ordainean. Nazioko eta nazioarteko aldizkarietan eta egunkarietan aritzen da lankidetzan. Haren lanak ingelesera, frantsesera, portuguesera, italierara, grekora eta suomierara itzuli dira.

**ÁNGELA MOLINA CLIMENT** (Kazetaria)

Angela Molina arte-kritikaria da, Espainiar Filologian lizentziatua eta Literaturaren Teorian eta Literatura Konparatuan doktorea Bartzelonako Unibertsitate Autonomotik (UAB). 2000ra arte, kolaboratzailea izan da ABC egunkariko kultura-gehigarrian, eta 2001az geroztik, arte eta literaturako ataletan idazten du *Babelia eta Quadern* kultura-gehigarrietan (El País) eta espezializatutako argitalpenetan (Lars, Revista de Libros, Minerva, Vanity Fair). Arte eta pentsamenduko Art & Co aldizkaria zuzendu zuen. Espezialista da teoria feministan eta genero-ikasketetan.

## ZINEMATEKA

**17:00: GUTARIKO AZKENA (2016) 75'**

Kirmen Uribe idazlearen idazketa-prozesua eta nazioarteko beste artista batzuekin dituen harremanak lantzen dituen dokumentala.

**19:00: BROKEBACK MOUNTAIN (2005) 134'**

1997an New Yorker-en argitara emandako Annie Proulxen kontakizunean oinarritua.

IRAKURLEAREN ORDUA: BILERA DIAMELA ELTITEKIN / 21:00

## OSTIRALA, APIRILAK 28

ATARIKOA // INUN. Gaia: Gutunak. **Kantaren izena:** Uncle Jim. **Hitzak:** Iñaki Mendizabal. Estatu Batuetara migratutako osaba bati bidalitako gutuna.

SOLASEAN... / 19:30

**KIRMEN URIBE** (Ondarroa, 1970)

Kirmen Uribe euskal hizkuntzan gehien irakurri eta itzuli den egileetako bat da. Euskal Filologia ikasi zuen Gasteizen (UPV/EHU) eta Literatura Konparatuko graduondoko ikasketak egin zituen Trenton (Italia). 2009. urtean Espainiako Literatur Saria eman zioten haren lehenbiziko nobelarengatik: *Bilbao-New York-Bilbao* (Elkar, 2008). Jakin-mina piztu zuen argitaletxeen arloan, eta 15 hizkuntzatarara itzuli zen. Erresuma Batuan, urteko 15 libururik onenen artean sartu zuen Foyles liburu-denden kateak.

**SANTIAGO SEGUROLA** (Kazetaria)

Santiago Seguro kazetariak eta idazleak ibilbide luzea du egina prentsan, hala kirol-esparruan nola kulturakoan. Deia eta La Gaceta egunkarietan lan egin du. El País egunkariko erredaktoreburua izan zen, aurrena, kirol-atalean (1999-2006) eta, gero, kulturaren. Marca egunkariko zuzendariondoko izan da (2007-2016), eta gaur egun iruzkingilea da Bein LaLiga eta Bein Sports-en. 2011. urtean, Manuel Vázquez Montalbán Nazioarteko Kazetaritza Saria jaso zuen. 2012an, *Héroes de nuestro tiempo* (Debate) liburua eman zuen argitara, kirol-kazetaritzan emandako 25 urteen bilduma.

IRAKURLEAREN ORDUA: BILERA KIRMEN URIBEREKIN / 21:00

SOLASALDIAK: AUDITORIOA. -1. SOLAIRUA 3€ / . IRAKURLEAREN ORDUA: ERAKUSKETA ARETOKO ATAUAREA. -2. SOLAIRUA HITZALDIRA JOATEN DIREN LAGUNENTZAT BAKARRIK. BILERA EDITOREEKIN: SARRERA DOHAINIK, GONBIDAPENA IZANEZ GERO (JASO INFOPUNTUAN) LEKU GUZTIAK BETE ARTE. AUDITORIUMA BETETA BADAGO, SOLASALDIAK BASTIDA ARETOAN JARRAITU AHAL IZANGO DITUZU 2€ / .

SARRERAK SALGAI INFOPUNTUAN (INFORMAZIOKO GUNEAN) ETA WWW.AZKUNAZENTROA.EUS HELBIDEAN

ALDAKETAK EGON DAITEZKE PROGRAMAZIOAN. KONTSULTATU INFORMAZIO OSOA HEMEN: WWW.AZKUNAZENTROA.EUS

## LARUNBATA, APIRILAK 29

ATARIKOA // INUN. Gaia: Delitua **Kantaren izena:** Estudiante Kondenatua **Hitzak:** Izengabea. Heriotza egin ondoren preso dagoen estudiante baten istorioa

## POESIA ERREZITALDIA / 19:30

## BEÑAT SARASOLA SANTAMARIA (Donostia, 1984)



Bi poema liburu ditu argitaraturik, *Kaxa huts bat* (Susa, 2007) eta *Alea* (Susa, 2009). Poesia itzultzeko zenbait mintegi nazioartekoetan parte hartu du eta Philip Roth-en *Nemesis* nobela ekarri du euskarara. Ikerketa liburu bat ere argitaratu du, 70-80. hamarkadako euskal literatur-aldizkariak aztertzen dituena: *Bainaren belaunaldia: Ustela, Pott eta Oh! Euzkadi*. Egun, munduko poesia euskarara ekartzen duen Susa argitaletxeko *Munduko Poesia Kaierak* bildumaren editorea da.

## DARÍO JARAMILLO AGUDELO (Kolonbia, 1947)



Darío Jaramillo Kolonbiako Hizkuntzaren Akademiako kide urgazlea eta Eleberrri Laburren Pereda sariaren irabazlea da. Zortzi poesia liburu argitaratu ditu, gehienak Valentziako Pre-Textos argitaletxearekin; etxe berean atera ditu argitara eman dituen zazpi eleberrietatik lau eta saiakera-liburuak. Haren argitalpenik berrienak *Del amor, del olvido* antologia poetikoa, *Historia de Simona* eleberria, *Poesía en la canción popular latinoamericana* saiakera eta *El cuerpo y otra cosa* poesia-liburuak dira.

## JUAN ANTONIO GONZÁLEZ IGLESIAS (Salamanca, 1964)



Juan Antonio González-Iglesias, poeta, itzultzailea eta pintorea izateaz gain, latinezko irakaslea da Salamancako Unibertsitatean, eta Ovidio eta Katuloren itzultzailea ere bai. 1993an argitaratu zuen lehen poema-liburuak, *La hermosura del héroe* izenburupean, eta Vicente Núñez Saria jaso zuen harekin. *Esto es mi cuerpo* (Visor, Madril, 1997), *Un ángulo me basta* (Visor, Madril, 2002) eta *Olimpicas* (El Gaviero, Almería, 2005) dira haren bibliografiako lanen tituluetakoz batzuk. *Eros es más* lanarekin (Visor, Madril, 2007), Loewe Fundazioaren Nazioarteko XIX. Poesia Saria eskuratu zuen. 2014an.

## IRAKURLEAREN ORDUA / 21:00


## BILERA: J.A. GONZÁLEZ IGLESIAS, CLARA JANÉS, DARÍO JARAMILLO, CHANTAL MAILLARD ETA BEÑAT SARASOLAREKIN

## IGANDEA, APIRILAK 30

ATARIKOA // INUN. Gaia: Autobiografiak eta biografiak **Kantaren izena:** Ni naiz. **Hitzak:** Iñaki Mendizabal. Jean Genet poetaren omenez egindako kantua. Lehen pertsonan idatzia dago, modu autobiografikoan

## BILERA EDITOREEKIN / 19:30

## CLAUDIO LÓPEZ DE LAMADRID (Bartzelona, 1960)



Claudio López de Lamadriden Christian Bourgois-ekin Parisen egin zituen praktika batzuetan ekin zion editore-laneko ibilbideari. Gero, 10 urtez aritu zen lanean Tusquets Editores-en, eta, horren ondoren, Círculo de Lectores-en Galaxia Gutenberg zigilua sortu eta garatu zuen ekimenean hartu zuen parte. 1997an, Grijalbo Mondadori-ren argitaletxeko zuzendari izendatu zuten. Harrezkerotik, argitalpen-taldeko kidea izan da, beti literatura-arloan.

## MANUEL BORRÁS (Valentzia, 1952)



Manuel Borrás Pre-Textos argitaletxearen (1974) sortzaileetako bat, gaur egun bertako literatura-editorea da. Filologia Modernoan lizentziaduna Valentziako Unibertsitatean, aleman eta ingelesezko espezialitateetan. Unibertsitate-garaian germanistikako lan akademikoak egin zituen, Alemaniako eta Austriako mugimendu espresionistari buruz. Lankidetzan aritzen da aldizkako argitalpenetan eta aldizkari espezializatuetan.

## MODERATZAILEA: IÑAKI ESTEBAN



Iñaki Estebanek *El efecto Guggenheim* eta *Libertad y sentido en las sociedades democráticas* idatzi ditu, azken hau Saiakerako Miguel de Unamuno saria dena. Kazetaritzako irakaslea da, *El Correo* egiten du lan, eta kultura-arloko hainbat argitalpenetan aritzen da lankidetzan, baita literaturari buruzko irratsaio batzuetan ere. 2002an Kataluniako Editoreen Gremioak urteko artikulugilerik onenaren Atlántida saria eman zion.

## CHANTAL MAILLARD (Brusela, 1951)



Chantal Maillard poeta eta saiakera-egilea da. Espainiako Poesia Sari Nazionala irabazi zuen *Matar a Platón* lanarekin (2004) eta Kritikaren saria *Hilos* liburuarekin (2007); azken horrekin Andaluziako Kritikaren saria ere irabazi zuen. Filosofiako doktorea da, Indiako filosofian eta erlijioan espezialista Indiako Banaras Hindu Universityn eta Arteen Estetikako eta Teoriako irakasle titularra, eta 2000. urtera arte irakasle izan da Malagako Unibertsitatean.

## CLARA JANÉS (Bartzelona, 1940)



Clara Janés Filosofia eta Letretako lizentziatua da, eta Maitre és lettres Literatura Konparatuan Parisko IV Sorbona Unibertsitatean. Poesia, eleberria, biografia eta saiakera lantzen ditu, eta hainbat hizkuntzako itzultzaile gisa nabarmendu da. 1992an Turkiako Tutav Fundazioaren Saria jaso zuen, Espainian turkiar poesia zabaltzeko egindako lanagatik. 1997an Itzulpen Sari Nazionala eman zioten, obra osoko lanaren ordainetan.

## MARÍA LUISA BLANCO: ERREZITALDIAREN AURKEZPENEA



María Luisa Blanco, cambio 16 aldizkariaren zuzendariordea, Letras de Cambio liburu-gehirriaren editorea, Diario ABC-ren kultura-gehirriaren zuzendaria, El País egunkariaren Babelia gehigarriaren zuzendaria, eta Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofiako argitalpenen zuzendaria izan da. Gaur egun, Gutun Zuria nazioarteko jaialdia zuzentzen du, eta hainbat kultura-proiektutan dabil lankidetzan.

## JOAN TARRIDA (Bartzelona, 1959)



Joan Tarridak edizioaren esparruan garatu du bere jarduerak profesional osoa. Argitalpenen zuzendaria izan zen Bartzelonako Joko Olinpikoetan, eta 1992an Bertelsmann taldean sartu zen, hain zuzen, Plaza & Janés-eko Sorkuntza Editorialeko zuzendari-lanak hartu zituen bere gain. 1999tik aurrera, Círculo de Lectores-eko zuzendari editoriala eta, gero, zuzendari nagusia, eta Galaxia Gutenbergeko zuzendari nagusia eta argitalpeneko zuzendari nagusia izan da Espainiarako eta Portugalerako. 2011ko urtarilean, Galaxia Gutenberg zigilua hartu zuen, eta gaur egun zuzendari nagusia eta editorea da bertan.

## OFELIA GRANDE DE ANDRÉS (Salamanca, 1970)



Enpresa-arloko trebakuntza du eta abokatu-lanean ibilia da zenbait urtez Paris, Londres eta Madrileko bulegoetan. Madrilgo Escuela de Letras-etik igaro (1996-1999) eta Harvardeko Unibertsitatean edizioari buruzko ikastaro bat egin ondoren, Ediciones Siruelako argitaletxeko koordinatzaile-lanak egiten hasi zen, eta gaur egun kontseilari ordezkaria eta argitaletxeko zuzendaria da.

SOLASALDIAK: AUDITORIOA. -1. SOLAIRUA. 3€ / 2€; IRAKURLEAREN ORDUA: ERAKUSKETA ARETOKO ATAURREA. -2. SOLAIRUA HITZALDIRA JOATEN DIREN LAGUNENTZAT BAKARRIK. BILERA EDITOREEKIN: SARRERA DOHAINIK, GONBIDAPENA IZANEZ GERO (JASO INFOPUNTUAN) LEKU GUZTIAK BETE ARTE. AUDITORIUMA BETETA BADAGO, SOLASALDIAK BASTIDA ARETOAN JARRAITU AHAL IZANGO DITUZU 2€ / 1€;

SARRERAK SALGAI INFOPUNTUAN (INFORMAZIOKO GUNEAN) ETA WWW.AZKUNAZENTROA.EUS HELBIDEAN


ALDAKETAK EGON DAITEZKE PROGRAMAZIOAN. KONTSULTATU INFORMAZIO OSOA HEMEN: WWW.AZKUNAZENTROA.EUS

## ASTELEHENA, MAIATZAK 1

ATARIKOA // INUN. Gaia: Erotismoa Kantaren izena: Karen Hitzak: Jon Arano. Jon Aranoren 'Arnoz eta pornoz' poemaren oinarritutako kanta


## ZINEMA- ETA LITERATURA-BILERA / 19:30

## JEAN-CLAUDE CARRIÈRE (Colombières-sur-Orb, Frantzia)



Jean-Claude Carrière nazioartean onarpen gehien jaso duen Frantziako dramaturgo eta gidoilarietako bat da. Luis Buñuelen lankiderik estuena izan zen hogeitaz urtez, eta harekin idatzi zituen *Le charme discret de la bourgeoisie*, *Belle de Jour* eta *Cet obscur objet du désir*. Gainera, film hauen gidoiak idatzi ditu: *Latorrizko danborra*, *Izatearen arintasun jasanezina*, *Cyrano de Bergerac* eta *Birth*. Dramaturgo gisa, dozena bat antzezlan idatzi ditu Peter Brookekin, elkarlanean. Era berean, *Nadie acabará con los libros* (Lumen, 2010) elkarriketen liburua idatzi zuen Umberto Ecoekin batera.

## GUILLERMO ARRIAGA (Mexico Hiria, 1958)



Idazlea, ekoizlea eta zinema-zuzendaria da Guillermo Arriaga. *Amores perros*, *21 gramos* eta *Babel* trilogian, narratiba ez lineala aukeratu zuen, eta bizitzaren pisuaz hausnartzen du, heriotzaren gainetik. Duela gutxi *Desde allá* istorioa ekoitzi du, eta idazlekide ere izan da: Veneziako Zinema Jaialdiko Urrezko Lehoia irabazi duen lehenengo film iberoamerikarra.

*Escuadrón Guillotina* (1991), *Un dulce olor a muerte* (1994) eta *El búfalo de la noche* (1999) eleberriak argitaratu ditu, eta *Retorno 201* ipuin-bilduma ere bai. Hemezortzi hizkuntzataraz itzuli da haren lana.

## MICHEL GAZTAMBIDE (Apt, Frantzia, 1959)



Euskal Ekoizleen Elkarteak antolatutako lehen gidioen lehiaketa irabazi zuen 1987an, *Los puñales de la Martinica* izeneko testuarekin. Testu hori *Chatarra* filmaren oinarria izan zen gero. Horren ondoren, irakaskuntza utzi, eta zinemagintzan aritu izan da soilik. 1990ean, gidoilari profesional gisa egin zuen estreinaldia, *Santa Cruz, el cura guerrillero* lanarekin, eta, harrezkero, hainbat lan idatzi, zuzendu edo ekoitzi ditu, besteak beste, *La caja 507*, *La vida mancha*, *Hombre sin hombre*, *No habrá paz para los malvados* eta *Baztán*.

## IRAKURLEAREN ORDUA / 21:00

## BILERA:

JEAN-CLAUDE CARRIÈRE  
GUILLERMO ARRIAGA  
MICHEL GAZTAMBIDEREKIN

## MAIATZAK 3 ETA 4

## ZINEMATEKA

ASTEAZKENA 3, 17:00h / OSTEGUNA 4, 19:30

## LE CHARME DISCRET DE LA BOURGEOISIE (1972) 102'

Luis Buñuelek zuzendua, Jean Claude Carrière errealizadore eta idazlearen gidoiarekin.

ASTEAZKENA 3, 19:00 / OSTEGUNA 4, 17:00

## THE BURNING PLAIN (2008) 111'

Guillermo Arriaga idazleak zuzendua.

## ZINEMATEKA GUTUN ZURIA ZIKLOA: LITERATURATIK ZINEMARA

Literatura sorkuntza artistikoaren beste esparru batzuetara hedatzen da, esate baterako, zinemara, liburuaren egokitzapenak edo eleberrietan eta saiakeretan oinarritutako gidoiak eginez. Horren erakusgarri

ditugu 2017ko Gutun Zuria jaialdiaren Zinematekako ziklo berezian programatu diren lau filmak: 'Brokeback Mountain' (2005), Annie Proulxen kontakizunean oinarritua; 'Gutariko azkena' (2016), Kirmen

Uribe idazlearen sorkuntza prozesuari buruzko dokumentala; 'The burning plain' (2008), Guillermo Arriaga idazleak zuzendutakoa; eta 'Le charme discret de la bourgeoisie' (1972), Luis Buñuelek zuzendua,

Jean Claude Carrière errealizadore eta idazlearen gidoiarekin. Gutun Zuriaren edizio honetan, gainera, aukera izango dugu haietako batzuekin hizketan aritzeko.

## BROKEBACK MOUNTAIN (2005) 134'

Zuzendaria: Ang Lee. Gidoia: Larry McMurtry, Diana Ossana (Istoria: E. Annie Proulx). Aktoreak: Heath Ledger, Jake Gyllenhaal, Anne Hathaway, Michelle Williams, Randy Quaid, Linda Cardellini, Anna Faris, Scott Michael Campbell, David Harbour, Kate Mara.

## GUTARIKO AZKENA (2016) 75'

Zuzendaria: Josu Venero. Parte-hartzaileak: Kirmen Uribe, Elizabeth Macklin, Sally Perret, Su Tong, Carmen Mussche, Wim Mertens, Keijiro Suga, Nami Kaneko, Bingen Mendizabal, Mikel Urdangarin.

PROGRAMA:  
Apirilak 26

17:00 BROKEBACK MOUNTAIN  
(2005) 134'  
20:00 GUTARIKO AZKENA  
(2016) 75'

## Apirilak 27

17:00 GUTARIKO AZKENA  
(2016) 75'  
19:00 BROKEBACK MOUNTAIN  
(2005) 134'

## Maiatzak 3

17:00 LE CHARME DISCRET DE LA  
BOURGEOISIE (1972) 102'  
19:00 THE BURNING PLAIN  
(2008) 111'

## Maiatzak 4

17:00 THE BURNING PLAIN  
(2008) 111'  
19:30 LE CHARME DISCRET DE LA  
BOURGEOISIE (1972) 102'

Film guztiak JBGGA (jatorrizko bertsoan, proiektatuko dira gaztelaniazko azpitituluekin)

ZINEMATEKA: 4,5€ / 3,5€  
SARRERAK: ZINEMAKO TXARTELDEGIAN ETA  
WWW.GOLEM.ES HELBIDEAN

